



EEPF



EUSKADI CIJB-EKO KIDE OFIZIAL BEZALA ESTREINATUKO DA VALENTZIAREN KONTRA

Bihar Amezketan egingo den erakustaldiaren ostean, bi selekzioak Azkoitian eta Oiartzunen lehiatuko dira

CIJB-en (Confederation Internationale du Jeu de Balle) modu ofizialean sartu ondoren, orain Euskal Selekzioak historikoa den ofizialtasun hori estreinatuko du asteburu honetan bertan Valentziaren kontra, hau da, joko zuzeneko selekzio indartsuenetariko baten kontra.

Hasteko, bihar bertan, ostiralean, 19:30retatik aurrera, Amezketan, Bote Luzeko erakustaldi bat egingo da eta orduan Lapurdi eta Gipuzkoako pilotariak nor baino nor arituko dira. Modalitate hori eskuzko zaharrena da, izan ere, 1.500 urteko historia dauka eta orain dela ehun arte Amezketan praktikatzen zen. Joko zuzena da eta ez du inongo hormarik, ezta sarerik behar, bakarrik joko eremu bat, lurrean arrazto batzuk eta bi talde aurrez aurre.

Larunbatean, Euskal Herriko eta Valentziaren arteko saio bikoitza egongo da. Goizez, 12:00etatik aurrera, Azkoitiko Jorge Oteiza frontoietan, Llargues izango da ikusgai. Espezialitate hori hemen jokatzen den errebotearen antzekoa da eta ordu bat geroago, neskak one-wallean arituko dira. Hori esku-pilota bezalakoa da, baina ez dago ezker pareta eta frontisak ez dauka txaparik.

Arratsaldez, 19:30etan, Nazioarteko Modalitatea izango da protagonista, horrek aipatutako Bote Luzeko antza dauka eta 20:30etan, Nafarroako pilotariek erakustaldia eskainiko dute frontoian, bai pasakaz, baita eskuz ere, baina kasu horretan bikote mistoak osatuko dira, mutil esta neska banarekin.



EEPF



Igandean, lehia Oiartzunen izango da, han hiru espezialitateak izango baitira berriro ikusgai. Gauzak hala, 11:30etarik aurrera, Euskal Herria eta Valentzia nor baino nor arituko dira Nazioarteko Modalitatean, 12:30etan One-Wall helduko da eta, bukatzeko, 13:00etan, bi selekzioek Llarguesen daukaten trebezia erakutsiko dute.

EUSKADI SE ESTRENA COMO MIEMBRO DE LA CIJB MIDIÉNDOSE A VALENCIA

Tras la exhibición de mañana en Amezketa, las dos selecciones se enfrentarán en Azkoitia y Oiartzun el sábado y el domingo

Tras su histórica entrada como miembro de pleno derecho de la CIJB (Confederation Internationale du Jeu de Balle), a Euskal Selekzioa le ha llegado el momento de estrenar la oficialidad con motivo de la confrontación que protagonizará este mismo fin de semana contra Valencia, una de las potencias en las modalidades de juego directo.

Como aperitivo, mañana viernes tendrá lugar a partir de las 19:30 horas en Amezketa una exhibición de Bote Luzea, en la que se enfrentarán pelotaris de Lapurdi y de Gipuzkoa. Esta especialidad es la más antigua de la pelota mano, con una historia de 1.500 años y hasta cerca de un siglo se practicaba en Amezketa. Se trata de un juego directo en el que no se necesita ni pared ni red, simplemente hace falta un terreno de juego con marcas en el suelo y dos equipos, uno enfrente del otro.

El sábado habrá doble sesión con el esperado choque entre Euskal Herria y Valencia, que se enfrentarán a partir de las 12:00 horas en los frontones Jorge Oteiza de Azkoitia. Para arrancar está previsto el duelo a Llargues, similar al rebote que se practica en nuestra tierra, y una hora más tarde las chicas confrontarán a one-wall, que es parecido a la mano, pero sin pared izquierda y sin chapa en el frontis.



EEPF



Ya por la tarde, a las 19:30 horas llegará el turno de la Modalidad Internacional, que recuerda al mencionado Bote Luzea, y a las 20:30 horas habrá una exhibición en el frontón con pelotaris navarros que jugarán a pasaka y a mano, en este caso formando parejas mixtas de chico y chica.

El domingo, la contienda se desplazará a Oiartzun, donde se volverá a presenciar estas tres especialidades. Así, a las 11:30, Euskal Herria y Valencia se medirán en la Modalidad Internacional, a las 12:30 horas se jugará a One Wall y finalmente, a las 13:00 horas los dos conjuntos mostrarán su calidad a Llagues.